

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

18 positibo berri
2.397 positibo guztira*
*Hernanin 67, Astigarragan 24

1.621 hildako EAEn
6 UCIn, EAEn

NAFARROAN

27 positibo berri
5.523 positibo guztira
Sendatuak EAEn: 18.427

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Hezur-haragizko biltokia, Oialume

HERNANI
OIALUME BILTOKIA

5



Bigarren Eskuko Azoka gaur, Urbieta kalean

HERNANI
BIGARREN ESKUKO AZOKA

6



Udaran eta egoera berezian bozkatzera deituta bihar, 20.625 urumear

URUMEA
HAUTESKUNDEAK

8

San Ferminen faltan, udaleku txuri-gorriak

Festarik ez da izan aurten Martindegi auzoan, baina badute albiste onik ere: udalekuak antolatu, eta auzoko haurrak elkartzera lortu dute. Haiek ospatu zuten San Fermin eguna, zezen eta guzti.

2-4



Lagunarteko Herriartekoa gaur, Goizuetak

URUMEA
ESKU PELOTA

7



'Small foot' pelikula ikusgai, gaur gauean

EREÑOTZU
UDA KULTURALA

6



Finalaren bila ariko da gaur Aritz Zubiri

Urrizarekin batera, semifinala jokatu du, Ansa II eta Larrañagaren kontra, Gala-rretaren 50garren urteurreneko txapelketan.

GOIZUETA-HERNANI
ERREMONTEA

7

358.500 euroko gastua, erosketa bonuetan

50 euroko 5.294 bonu saldu dira guztira; hau da, 358.500 euroko gastua egin dute hernaniarrek, herriko komertzioetan.

HERNANI
UDALA

6

TALLERES JUANTXO

Juan Ignacio Rodríguez

▼ Diagnosi unibertsala

▼ Neumatikoetan aukera zabala

▼ Aire egokituaren karga eta konponketa

▼ Suspentsioak, Balaztak

▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

«Auzokoak gehiago elkartzeko balio izan digu pandemiak; orain egunero ikusten dugu elkar»

Festa giroan murgilduta behar zuen une honetan, Martindegi auzoak; baina aurten ez da San Fermin jairik. Albiste onik badute auzoan, ordea, eta baita ekimen berririk ere: udalekuak antolatu dituzte aurrenekoz, uztaileko. Zapi gorriek ez zuten huts egin, astearteko jolasetan.

URUMEA MARTINDEGI AUZOA

Txuriz eta zapi gorriak jantzita, festa giroan behar zuen Martindegi auzoak gaur, baina horrelakorik ez da izango, aurtengoan. Bertan behera geratu dira San Ferminak, bailarako gainerako festa guztiak bezalaxe.

Armairuan gordeta ere ez dira geratu arropa txuriak eta zapi gorriak, dena den. Asteartean, San Fermin egunean, horrela jantzita atera ziren kalera auzotarrak; egoera arraroenean, egun berezia delako uztailearen 7a, Martindegin. Etxeferoak bota zituzten, balkioiak apaindu, auzoko lokalean Ikurriña eta Nafarroako bandera jarri, eta zezena ere atera zuten kalera.

«Konturatuko ziren Hernanin eta Astigarragan, gurean jaieguna zela! Gu konturatu ginen bezala, Etxeberrikoekin; haiek ordu erdiro aritu ziren etxeferoak botatzen. Behintzat zerbait egin nahi genuen, beste la oso tristeza geratzen delako», azaldu dute Bea Ormazabalek, Xabier Barrenetxeak eta Amaia Alkortak, hiru auzotarrek.

«Zeinek pentsatu behar zuen, orain dela hilabete batzuk, horrela egongo ginela orain? Hasieran uste genuen pasako zela, 15 eguneko kontua izango zela Koronabirusarena. Baina 15 egun joan ziren, beste 15 ere bai, eta luzatzen ari da kontua. Honetara ohitu beharra daukagu», diote.

Aurtengo San Ferminak, San Martinetan?

Zalantzan egon ziren auzotarrak, festetako ekintza batzuk antolatu edo ez: «baina azkenean, ikusi genuen ez zuela merezi. Ekintza

bat antolatzen baduzu, etorriko zaizu beste bat esanez, zergatik gauza bat bai eta bestea ez; eta arrazoi izango du. Beraz, bi aukera geneuzkan; guztiarekin aurrera egin, ahal zen moduan, edo ezer ere ez egin. Eta erabaki genuen bertan behera uztea».

Pandemiarik izan ez balitz, «erotuta» ibiliko ziren, aurreko egunetan: «hau falta dela, beste ekarri behar dela, eszenatokia montatu behar dela, txosnan ez dakit zer jarri... Baina jaiak hasi aurretik, ohitura polit bat ere hartu dugu. Bezperan elkartzeko gara, antolatzen gabilzanak, eta afari bat egiten dugu, bakoitzak zerbait prestatuta. Azkeneko lau-bost urteotan egin dugu, eta oso polita izaten da», kontatu dute.

Kontu horiek denak «ahaztuta» dauzkate aurten, baina badute festarik egiteko esperantza, oraindik: «komentatu dugu, akaso San Martinetan egin dezakegula zerbait. Normalean, auzo mailan egiten dugu, haurrentzako festa pixka bat, eta ondoren auzotarren bazkaria, babarrun jatea, auzoko jatetxe edo sagardotegi batean. Eta aurten San Ferminik ezin izan dugunez ospatu, akaso bi eguneko festa egin dezakegu San Martinetan; betiere, dena ondo badijoa orduan, azaroan».

Udalekuak auzoan bertan, aurten aurreneko aldiz

Ezin izan dituzte behar bezala ospatu San Ferminak, baina dena ez dira albiste txarrak, auzoan. Eta pandemiak sortu duen eraginaren ondorioz, aurten aurreneko aldiz antolatu dituzte udalekuak, auzoan bertan. «Ha-



Arropa txuria eta zapi gorria jantzita, eta lokaletik zintzilikatu zituzten Nafarroako bandera eta Ikurriña, asteartean.

siera batean ez zen udalekurik izango, ez Hernanin eta ez Astigarragan. Eta haurrek denbora pila bat zeramakiten etxean, beste haurrekin harremanik izan gabe. Udara luze joan behar zitzaion horrela, eta beraien artean harremana izan zezaten, hasi ginen udalekuak antolatzen. Pixkanaka, haurrak apuntatzen joan ziren, eta azkenean 16 haur elkartu dira!», diote.

Uztailearen lehen hasi ziren, eta hilabete osoan izango dira udalekuak, astegun guztietan, 09:30etatik 13:30etara: «oso gustora dabilta haurrak. Adin guztietakoak elkartu dira gainera. 12-13 urtekoak badira, eta txikiak hiru urte besterik ez ditu».

Astigarragan zein Hernanin, bietan antolatu dituzte udalekuak azkenean: «baina hemen goxoago egongo dira. Eta gainera, modu bat da auzoa egiteko eta elkartzeko ere. Hemen gatzetxo batzuk elkartzeko dira

normalean, baina beste batzuk, jaietan edo Gabonetan bakarrik. Egia da pixkanaka ari zela taldea haunditzen, baina gehiago elkartu dira oraingoan, goiko baserrikoa dela, bestekoa dela... Eta saltsa polita ematen dio horrek», nabarmendu dute.

Auzoan elkartzeko dira goize-ro, eta astean behin, irteera bat ere egingo dute. Astelehenean, adibidez, Santiomendira joan ziren, San Fermin egunaren bezperan. «Irisarrira ere egin nahi dugu irteera bat, baina ea nola dauden autobus kontuak...». Baina irteera laburragoak ere egingo dituzte, auzoan barrena: «auzoko baserriak ezagutzeko bisitak egitea da asmoa. Baserri batean ikasiko dute nola egiten duten gazta, bestean nola egiten dituzten mermeladak eta menbrilloak, Aitorren txakurtegira ere egin dezakete bisita...». Eta gainerakoan, jolas eta ekintzarik ez dute faltako, goizero.

«Konfinamenduan, kotxeko bozina zen auzotarrekin 'solasaldi' bakarra»

Auzoko haurrak egunero elkartze hori izan da, pandemiaren eragin positiboetako bat. Baina ez da horrela izan hasieratik: «oso tristeak izan ziren pandemiaren aurreneko asteak. Auzotarrek ez genuen elkar ikusten. Beste auzo batzuetan, aurreko bizilaguna ikusten duzu etxetik, eta hitz egin dezakezu balkoitik balkoira; hemen ez da posible. Bakarren bat kotxearekin pasa, eta bozina jotzen zizula izaten zen solasaldi bakarra».

Mesedegarria ere izan da hori, haurrentzat: «tokia zeukaten balkoietan, terrazetan eta jardinetan aritzeko, eta ez dira etxeko lau pareten artean sartuta egon. Patinetean eta bizikletan ere ibili ahal izan dute batzuek. Herrigunean, zenbaitek balkoirik ere ez daukate. Ezin genuen ulertu, nola aguantatu zezan

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM



«Hemen auzokoak gara denak, baina bat bizi da bi kilometrorra, bestea kilometro erdira... Sakabanatuta dago auzoa. Gurasoek ezagutzen dugu elkar, baina haurrek ez badute harremanik, galdu egiten da lotura»

keten haurrek 40 egun baino gehiago pisuan sartuta. Gogorra izan behar da hori. Guk pribilegio txiki hori izan dugu, askatasuna izan dute haurrek, ez elkartu arren».

Eta orain, konfinamendua- ren ondoren, auzotik atera gabe dabilta haurrak: «egunero egoten dira elkarrekin. Bestela, noizean behin bakarrik elkartzen ziren, bakoitzak bere gelako lagunak dauzkalako, eta pelota, futbola, gitarra edo dena delakoa daukatelako arratsaldeetan. Zentzu horretan, mesede egin digu pandemia honek».

Izan ere, haurrak ez dira bakarrik, orain gehiago elkartzen direnak: «normalean, eguraldi polita badago, jolasteko elkartzen dira haurrak arratsaldetan, auzoko lokalaren inguruan. Eta haurrak elkartuta, gurasoak ere bai. Bertan topatu, eta tertulian aritzen gara. Baina egoera hone- tan, gehiago ari gara elkartzen. Lehen, egon gintezkeen denbo- ra askoan elkar ikusi gabe; eta orain, egunero ikusten dugu el- kar. Horretarako ondo etorri zai- gu. Ez gara hainbeste mugitzen herrira, eta festarik ere ez da- goenez inon, gutxiago ateratzen gara auzotik».

«Sakabanatuta dago auzoa, eta haurrak elkartzeak asko laguntzen du»

Haurrak dauzkaten auzotarrak dira, gehien elkartzen direnak auzoan: «jaietan eta horrelakoe- tan bai, ibiltzen da jendea, bai- na bestela... Badaukagu auzoko WhatsApp talde bat, eta ia auzo- tar guztiak gaude sartuta hor. Baina jaiak antolatzen ibiltzen

«Oso polita da, orain udalekuetan bezala, haurrak egunero elkartzea, baserri hartakoa, hango beste etxekoa... Saltsa polita ematen dio horrek auzoari, eta oso gustora dabilta haurrak»

garenok, beste bat ere badauka- gu. Izan ere, betiko koadrila ari- tzen gara horretan. Festak ger- turatu bezala, lana egin behar denean, etortzen dira gehiago ere, izan auzokoak edo auzo- are- kin harremana daukatenak».

«Hemen auzokoak gara de- nak, baina bat bizi da bi kilo- metrora, bestea 500 metrora... Sakabanatuta dago auzoa. Eta haurrak elkartzeak, asko lagun- tzen du. Gurasoek ezagutzen dugu elkar, baina haurrek ez ba- dute elkar ezagutzen, galdu egi- ten da lotura. Eta oso polita da, orain udalekuetan bezala, egu- nero elkartzea, baserri hartakoa, hango beste etxekoa...», diote.

Bizimodua aldatu egin dela uste dute hiruek: «garai batean, jendeak beste txip bat zeukan, eta bazegoen harreman hori gazteen artean. Jaiak antola- tzeko, denak elkartzen ginen. Orain bizimodua aldatu da, eta gazteak ez dira hainbeste inpli- katzen, bakoitza bere kontuetan dabil. Uste dugu, honekin hasi garela auzoa elkartzen, mugi- tzen eta bizia ematen. Eta ho- rrek animoa ematen digu».

Izan ere, belaunaldi baten falta sumatu dute beraiek: «gu auzoko lanetan sartu aurretik, aurreko belaunaldia ziren gure osabak, anaia zaharrenak... Bai- na gure belaunaldiaren ondoren, ez dago beste inor. Guk jarrai- tzen dugu lan horretan, eta 40 urtetik gora dauzkagu. 18-20 urte ingurukoek eta helduagoek, bes- te txip bat daukate. Belaunaldi bat galdu da, zentzu horretan. Laguntzen dute jaietan eta ekin- tza puntualetan, erdi derrigor- tuta, eta kaña pixka bat sartzen



Talde polita elkartu da Martindegin, auzoko aurreneko udalekuetan.



Zezena ere atera zuten kalera gaztetxoek, San Fermin egunean.

diegulako. Gure garaian, aldiz, desiatzen egoten ginen edozer egiteko, eta bileretara joaten hasteko», kontatu dute.

«Nik 14 urterekin egin ni- tuen aurreneko lanak, jaiak antolatzen», dio Barrenetxeak. Haien aurreko belaunaldietan, gizonak bakarrik aritzen ziren Jai Batzordean, «eta gu izan gi- nen aurreneko emakumeak. Gu sartzearekin batera hasi zen an- tolatzen Sagardo Proba», azaldu du Ormazabalek.

Hurrengo belaunaldi baten falta, beste auzoetan ere naba-

ritu dutela uste dute Martinde- gikoek: «besteetan ere ikusten dugu hori. Osiñagako jaietara joan, eta hasi zirenak daude an- tolakuntzan, oraindik ere. Eta ia 30 urte daramazkite haiek!».

Horregatik, belaunaldi berri batekin dute esperantza, orain: «gure haurrekin ari gara, gazte- txoagoak diren horiekin, ea lor- tzen dugun inplikazio hori».

«Lokalak bizigarria ematen dio auzoari, hau da gure bilgunea» Belaunaldi berri bat lortu bitar- tean, beste berritasunik badute

azkenaldian: «lokala izan da auzoko berrikuntza potentea. Urte askotan falta izan dugu, eta makina bat aldiz eskatu. Eta azkenean lortu dugu. Lagundu du bi Udalak kolore berdinekoak izateak, eta alkateak ondo mol- datzen zirela. Beraz, ados jarri ginen auzotarrak eta bi Udalak: Astigarragakoak jarri zituen lu- rrrak, Hernanikoak materiala, eta eskulana auzoak».

Izan ere, auzolanean egin zuten lokala: «aurrena proposa- tu ziguten barrakoi moduko bat jartzea, pabiloi bat alokatzea ere

IÑIGO
egur lanak
www.egurlanak.com
TEL 699 729 205
inigo@egurlanak.com

Palak eta Grabatuak
www.barrenepalak.com
699 729 205
info@barrenepalak.com

ONDO PASA
SAN FERMIN BEREZI HAUETAN!



ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10





Martindegiko bilgunea da lokal berria, adin guztietako auzotarrentzat.

bai; baina guk beste ideia bat planteatu genien. Udaletxeak ez al du proposatzen auzolana? Lehen funtzionatzen zuen, eta hala egitea proposatu genien. Jarri genituen ataka batean, ezin zutela ezezkorik eman!», diote barrez. Eta hala egin dute.

Lokala izateak, auzoari mesede haundia egiten diola uste dute: «bizigarria ematen dio auzoari. Lehen, tabernaren inguruan biltzen ginen; baina txotx garaian bakarrik irekitzen da orain, eta beraz, auzoa puskatuta geratzen da gainerakoan. Lokalari esker bildu da berriro. Azken batean, horixe da lokala, gure bilgunea».

Elkartu bakarrik ez, denetik egiten dute bertan: eskulan taillerak, yoga ikastaroak... «Korrika izan zenean ere, afaria antolatu genuen bertan, goizaldean pasatzen zelako Korrika hemendik. Lokalean elkarrekin afaldu, eta Korrikarekin bat egin genuen gero. Kontzerturen bat ere izan dugu lokalean, eta ipuin kontalariak ere bai. Bizi pixka bat ematen dio auzoari».

«Auzoan frontoi txiki bat izatea litzateke primerakoa...» Lokala izanda ere, ordea, beste behar batzuk ere baditu Martindegik, auzotarren ustez: «haurrentzat frontoi txiki bat edukitzea izango litzateke primerakoa. Ez dugu eskatzen Ereñotzuko bezalako frontoi

bat! Frontoi koxkor bat nahikoa da...», diote barrez.

«Beharko genuke horrelako zerbait. Parke txiki bat daukagu haurrentzat, baina hemen aritzen dira pelotarekin eta baloiarekin, lokaleko paretaren eta leihoen kontra», azaldu dute.

Horretarako, lokaletik gertu, zubitxoaren beste aldean dau-

«Beharko genuke frontoi txiki bat edo horrelako zerbait. Parke txiki bat daukagu haurrentzat, baina hemen aritzen dira pelotarekin eta baloiarekin, lokaleko paretaren eta leihoen kontra»

den lurrak ikusten dituzte egoiak; eta izan da saiakerarik ere, aurretik: «Astigarragak utzi dizkigu lokala egiteko lurrak, baina Hernaniko Udalak ez dauka terrenorik Martindegin, zerbait egiteko. Dena partikularra da. Bere garaian, lur horietan, Luis Intxauspe alkatea aritu zen bertako jabearekin, kanpoko bera, lurrak erosi nahian, plaza bat egiteko. Eta aurreikusita dago,

bertan plazatxo bat eta iturri bat egitea. Baina ez zuten tratu-rik lortu. Izan ere, bertan etxe zahar bat zegoen, eta arazoak izan ziren horrekin. Egoera txarrean zegoen, puskak erortzen ziren, eta Udalak etxea botarazi zien. Diru pixka bat utzi zuten horretan. Intxausperen aurreko alkatezarekin gertatu zen hori, baina bera joan zenean lurrak erostera, jabeak ez zeuden oso pozik...», kontatu dute.

Uste dute, «oso toki ona» litzatekeela hori, zerbait egiteko, lokaletik gertu dagoelako: «hasi beharko genuke beharbada, Hernaniri eskatzen lurrak jartzeara... Lokala lortzeko makina bat urte pasa genituen eta!».

Harreman ona, bi Udalekin Edozein kasutan, azaldu dute harreman ona dutela bi Udalekin. «Batek ematen dizkigu gauza batzuk, eta besteak beste batzuk», azaldu dute.

«Astigarragako oso ondo portatu da azkeneko urbanizazio lanekin, lokalaren ondoan. Hauteskunde aurretik etorri ziren gurekin biltzera; guk lan horiek eskatu, eta egitekotan geratu ziren. Pentsatu genuen akaso izango zela askotan gertatzen dena; botoa lortzeko promesa egin, eta gero auskalo. Baina ez, alkatezta lortu, eta handik bi-hiru hilabetera etorri ziren, eta egin zuten agindutako guztia: obra bukatu zuten, espa-

loia aldatu, eta seinaleak jarri».

Haiekin, bilera pare bat egin dituzte legegintzaldi honetan, auzoz auzo egin izan dituzten bileretan. «Eta orain, wifia jarri digute auzo lokalean», diote.

Hernanikoari, berriz, jaietarako dirulaguntza eskatzen diote: «Astigarragakoari ere eskatzeko aukera izango genuke, baina batekin moldatzen gara, eta nahikoa papeleo badaukagu... Izan ere, ezin da sinistu, jai batzuk antolatzeke egin behar den papeleo guztia; harrigarria da. Enpresa bat bezala da, dena BEZarekin, dena justifikatuta... Azkenean, aholkularia kontratatu behar izan dugu horretarako. Lehen askoz ere errazagoa zen, pertsona bakarrak egiten zuen dena; erreziboak eramaten genituen, eta nahikoa zen. Eta orain biren artean ez gara moldatzen. Erreziboek ez dute balio; dena fakturarekin egin behar duzu, dena justifikatuta... Eta ez baduzu hala egiten, ez dago dirulaguntzarik. Asesoria batengana jo behar izan dugu, eta Hernaniko auzo mordo batek egin du gauza bera. Sekulako lana ematen du. Ez dago erraztasunik, jaiak antolatzeke; asko konplikatu da», adierazi dute.

Eta antolatzaileek bakarrik ez, partehartzaileek ere zailagoa daukatela diote: «izan musikaria, herri kiroletakoa, antzerki talde bat... Garai batean, etorriko zen, emango zitzaion diru kopuru bat eta afari bat, eta kitto. Baina gaur egun datorrenari, esan behar diozu ea posible duen faktura bat egitea. Eta esango dizu ezin duela; *ba agian ezin duzu etorri...* Askorozto da dena. Gero portatzen dira dirulaguntza ematen, baina lanak zaildu egin dira asko».

Hernaniko Udalarekin, ez dute bilerarik egin Martindegin, azkenaldian: «orain gutxi, deitu gintuzten auzo guztietakoak, jaiet buruz hitz egiteko, zer egin zitekeen eta zer ez. Eta komentatu ziguten, jaietarako eta kulturako diru partida hor egongo dela, ez dutela beste zerbaitera bideratuko; eta beraz, zerbait egiten badugu, hor izango dugula dirua. Gure kasuan, San Martinetan egiten baditugu festak,

«San Ferminetatik aurrera, udara bukatu egiten da auzoan, bakoitzak bere bizitza egiten du. Baina aurtun, uste dugu desberdina izango dela. Koronabirusak bizitzeko era aldatu digu, ohiturak ere bai, eta auzoarentzat, onerako izan da»

diru hori daukagu. Baina arazoa da, hilabete lehenago aurkeztu behar izaten dela aurrekontua, eta egoera honetan... Ez da erraza, hilabete aurrerapenarekin, jakiten zer egin ahal izango dugun eta zer ez».

Udara desberdina, aurtengoa San Martinak iritsi baino lehen, ordea, udara osoa daukate aurretik: «normalean, udara aldera egiten dugu irteera bat auzotarrek, haurrei eta gurasoei zuzendutakoa. Eta beste bat irailean, Errioxara, bodega batera. Horretan beste *publiko* bat izaten da», diote barrez. Helduak eta jubilatutako elkartzeko dira horretan, bereziki. «Baina ez dakiugu irteerarik egitea posible izango den. Kontua dagoen bezala, nahiko zaila da...».

Aurtengo udarari begira, ordea, baikor dira auzotarrak: «San Ferminak pasa arte, saltsa izaten da hemen. San Joanak pasa, San Ferminak etorri, eta auzo guztia elkartzen da. Baina hortik aurrera, udara bukatu da auzoan. Irailean eskolako errutina hartu eta auzoan ikasturteko tailer eta ikastaroak hasi arte, bakoitzak bere bizitza egiten du. Baina aurtun, uste dugu desberdina izango dela. Hasteko, uztaila osoan haurrak elkartu egingo dira; eta haurrak elkartuz gero, gurasoak ere bai. Koronabirusak mesede egin digu alde horretatik. Bizitzeko era aldatu digu, ohiturak ere bai, eta auzoarentzat, onerako izan da». **K**

ZUZENEAN

50

URTEURRENA

GALARRETA

ERREMONTA TXAPELKETA

Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:5€)

—FINALAURREKOA—

UZTAILA 11

Larunbata 15:15

1

ETXARRI BARRENETXEA IV VS GOIKOETXEA V ENDIKA

2

ANSA II LARRAÑAGA VS URRIZA ZUBIRI

3

JUANENEA LABAKA VS SEGUROLA AIZPURI III

sukia

GIPUZKOA

DV

ORIA MENDI

Orona

PAPELERA GIPUZCOANA

UTR

«Sekula ez dugu bizi horrelako itxiera potenterik, ez gure aiton amonek ez gurasoek»

1943garren urtean ireki zituen atea Oialume Biltokiak igandetako dantzaldietarako, eta orduz geroztik ez dituzte hain tarte luzerako itxi. Urrian berriro ere martxan jartzea espero dute.

HERNANI OIALUME BILTOKIA

Duela 77 urte sortu zen Oialume Biltokia, Jose de Juanantone 'Patas' eta Felix Orkolakua sasoiko gazteen arteko pulstu-apustu baten ondoren. Egun horretarako festa Barrenetxea familiak antolatu zuen eta Markos Zubeldia soinu-jole hernaniarrak girotu zuen eguna. Ordutik Barrenetxetarako daramakite Biltokiko antolakuntza, eta diote hau izan dela Biltokiak bizi izan duen egoera berezietarikoak.

Horregatik, «kolpe latza» izan da pandemiarena, baina udazkenean dantzalekua zabaltzea espero dute. Indartsu bueltatuko dira, gainera: «gure aldetik ahalegina egingo dugu. Irekitzeko aukera ikusten badugu, bertan indargunea jarri eta gu prest!», esan du Eztitxu Barrenetxeak.

«Ahulaldi haundi bat bezala bizi genuen musika taldeen gainbehera»

Musika «modak» direla dio Barrenetxeak eta azaldu du Biltokia irekita dagoenetik egoerara egokitzen joan behar izan dutela. «Beti egon izan da musikan zehar trantsizioa eta hasieran eskusoinua bakarrik zegoen, baina gero *jazbana* eta bateria sartu ziren, eta hor eman zen aldaketa potoloa».

Beste aldaketa haundi bat 80garren hamarkadan eman zen Oialumen, «euskal rock-a sartu zenean», azaldu du Biltokiko arduradunak. «Eta berdina gertatu da erromeri taldeetatik DJetarako fasea aldatu dugunean», onartu du: «moda aldatetako gertatzen dira».

Pandemiaren kasuan, ez-ohikoa den zerbait izan da, eta «inork espero ez zuena»; hilabeteak eman ditu itxita Oialumek osasun larrialdi egoeratik. Hasieran jendeak ea noiz irekiko ote zuten galdetzen zien, baina gero ikusi zuten «ezinezkoa zela berriro ere irekitzea».

Hala ere, kontatu dute musikak aldaketa eman zuen garaian eman zela dantzalekuko dekadentzia haundienetarikoa: «denboraldia ezin izan genuen bukatu, jendea ez zelako etortzen». Dio, ahulaldia bizi zuten garai hartan «DJak eta

horrelako musika berria» sartu zela, eta funtzionatu zuela.

«Baina guri kosta egin zitzaigun aldaketa hori ematea, erresistentzi puntu bat gurelako musika enlatatu horri», azaldu du Barrenetxeak. «Zuzeneko musika egon izan da beti Oialumen eta oraindik horren aldeko indarra egiten dugu».

Zenbait ekitaldi atzeratu, eta beste batzuk bertan behera

Dantzalekuak bazituen aldez aurretik programatutako saio batzuk, etxean egon garen hila-bete guzti hauetarako. «Bagenituen zenbait diskofesta, bertso-saio potente bat eta kontzertu bat». Baina larrialdi egoera hasi zenean arduradunek argi izan zuten arduraz jokatu behar zutela, eta «hasieratik hartu genuen konpromezua eta zalantzarik gabe itxi genuen», azaldu du.

«Momentuan momentuko egoerak erakutsiko digu zer baldintza bete, zer egoeratan gauden eta zer egiteko aukera izango dugun»

Horregatik, ekitaldi bat urtarilerara atzeratu da, baina gehien-goak bertan behera gelditu dira. «Etorriko dira, baina ez dago gure esku zer gertatuko den».

Dantzalekuko denboraldia, urritik ekainera bitartean izaten da Oialumen. Barrenetxeak azaldu du «orain ez dugu planteatzen irekitzerik, baina datorren denboraldian bai». Urrian irekiko dituzte atea berriro ere, «egoerak uzten badu».

Plangintzarako ideiak dituztela azaldu dute, baina momentuak erakutsiko die zer egin: «alperrikakoa da orain programazioak hastea, gero beste pikoren bat egongo bada». Erabakiak momentuan hartuko dituzte Oialumekoek, «zaila delako» hemendik hilabete batzuetara zer gertatuko den aurreikustea. «Harreman batzuk baditugu zenbait talderekin, baina beraiek ere berdina daude, esan dute Barrenetxetarako».

Oialume irekiz gero, momentuak esango digu zer neurri hartu behar ditugun. Eta begiratu beharko dugu ere irekitzeak konpentsatzen duen. Neurriak hartu behar dira, baina dena baloratuko da: konpentsatzen duen ala ez.

«Azkeneko denboraldiak oso ondo joan dira», eta datorrenak ere berdina jarraitzea espero dute dantzalekukoek.

«Hezur-haragizko sare sozial moduko bat da Oialume, zerbait berezia»

«Oialume Biltokiak badu fenomeno berezi bat»

Musika estiloa aldatu arren, jende estiloa edo publikoa antzekoa omen da beti, Biltokian: «herri ezberdinetatik etortzen den jende euskalduna da; hemen bilgune bat eta elkar eza-gutzeko leku bat topatzen dute. Gu euskal jendearekin eta herriko jendearekin beti gustora sentitu gara eta zorionez orain galdezka daude ea noiz irekiko dugun», esan du Barrenetxeak. «Pozik gaude jendearen erantzunarekin».


Dantzaleku bat baino gehiago

Historia luzea du Oialumeko Biltokiak. Barrenetxea familiak lehenengo festa hura antolatu zuenetik hamaika istorio eta anekdota dituzte.

Kontatzen dute, hasieran el-tze eta zartagin asko jartzen zituztela sutan bertara hurbiltzen ziren gazteei ogitartekoak prestatzeko: «Horietako mutil asko Loiolan soldadutza egiten ari ziren eta neskak probintziatik Donostiara etorri eta tabernetan, jatetxetan, dendatan edo etxetan neskame zeudenak ziren».

Igandeak bereziak izaten ziren inguruko herriarrentzat. Arratsaldeko laueta Oialumera gerturatu bezain pronto, zapatak erantzi eta alpargatak janzten zituzten, «sueltoan dantzatzeko», gaueko hamarrak arte. Bestelako garaiak ziren eta horregatik, ez zegoen dantzalekura sartzeko sarrerarik ez eta errifarik.

Garai hartan dantzalekua ordaintzeko modua ere berezia zen. Oilaskoak zozketatzen ziren dantzaldietan, eta tarteka arkumeak, baita ere. Zozketetatik ateratako diruarekin ordain-



Eztitxu Barrenetxea Oialume Biltokian.

tzen zuten antolatutako festa gutzia.

'Kostaldeko soinuak', urrian

Ander Barrenetxea Oialume Biltokiko familiakoa da eta bertan ibiltzen da, ekitaldiak antolatzen. Baina dantzalekuko arduradunetako bat izatez gain, musikaria ere bada, Barrenetxea.

Kostaldeko Soinuak proiektu berria aurkeztu zuen Juan Mari Beltran, Errege Belda eta Aitor Gabilondorekin. Herri-musikan oinarritutako diska da, baina bertso propio eta berriak ere egiten dituzte.

Apirilaren 17an kontzertua ematekoak ziren Hernanin, baina pandemiak galarazi egin zien agerraldia egitea. Hala ere, aurrerago egingo dutela ziurtatu dute: «egoerak uzten badu, apirilerako programatua genuen

kontzertua urrian egingo dugu», adierazi du musikariak.

Barrenetxea eta gainontzeko taldekideak Oartzungo Soinue-nea musika museoa biltzen dira entseatzeko, baina due-la gutxi aurkeztu hasi ziren proiektuari jarraipena emateko ezin izan dute biltzen jarraitu, taldekoek.

«Hasieran ezin genuen toki batetik bestera mugitu», azaldu du Barrenetxeak. Izan ere, taldekide batzuk hernaniarrak dira, baina Belda errenteriarra da eta horregatik, entseatzeko biltzea oraindik eta zailagoa izan zitzaiten. Hala ere, «museoa ireki denean entseatzeko hasi gara», esan du. Horrela, urrian bada ere, hernaniarrek «itsasaldeko kantutegian oinarritutako proiektuaz» gozatzeko aukera izango dute. **K**

Oialume zar
sagardotegia
www.oialumezar.com
Mikel Arozamena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38

Gora San Fermin!
Osasuna denei!

Bigarren Eskuko Azokak, Urbieta kalea hartuko du gaur goizean

Gaur goizeko 10:00etan hasita, Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute, Urbieta kalean. Eguerdiko 13:30etara egongo da aukera bertaratzeko eta maskarila jantzita joan beharko dute bisitariek.

HERNANI BIGARREN ESKUKO AZOKA

Covid-19aren eraginez, ezin izan dira azokak egin, hala ere, pandemiaren hasieratik, gaur aurreneko Bigarren Eskuko Azoka egingo da, nahiz eta ez izan ohikoa uda partean antolatzea.

Gaurko Bigarren Eskuko Azoka, Urbieta kalean jarriko da, eta



Maskarila jantzita eramatea beharrezkoa da gaurko Bigarren Eskuko Azokan.

goizeko 10:00etan emango zaio hasiera. Hiru ordu terdi egongo da irekita, eguerdiko 13:30etan izango baitu itxiera.

Gainera, herritarren eta Bigarren Eskuko Azokan parte hartzen dutenen segurtasuna

bermatzeko, maskarilak jantzita eramatea beharrezkoa izango da. Horrez gain, postuak ikusteko, bata bestearengandik 2 metroko distantziak mantendu behar dira, eta txanda itxaron beharko da. **K**

358.500 euroko gastua egin dute herritarrek, herriko komertzioetan

50 euroko 5.294 bonu saldu dira guztira, hau da, guztira 358.500 euroko gastua egin dute hernanierrek herriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan, Udalak martxan jarritako 'eutsihernaniri' kanpainari esker.

HERNANI UDALA

Aurreko hilabeteen, *eutsihernaniri* kanpaina jarri zuen abian Hernaniko Udalak, Berriak merkatarien eta ostalarien elkarrekin elkarlanean, Covid-19ak eragindako ondorio kaltegarrien aurrean, bertako merkataritza eta ostalaritzari «laguntzeko eta bultzada bat emateko». Behin kanpaina amaituta, balorazioa egin du Udalak, eta jakinarazi du «eros-

keta bonuen kanpaina arrakasta handiz amaitu» dela.

Kanpaina honetan, Hernaniko biztanle guztiek izan dute aukera parte hartzeko, «helduek zein adin txikikoek», kanpainara atxikitu diren herriko 153 negozioetan «ekaina osoan gatzatzeko».

Hernaniko Udalak dio, «oso erantzun ona izan dela herritarrena». Hala, 50 euroko 5.294 bonu saldu dira guztira. Bonuen salmentarik haundiena lehe-

nengo egunetan egin zen arren, Udalak azaldu du, «lehenengo astean, 2.381 bonu saldu zirela, gainera salmentaren erritmoa hilabete osoan mantendu da», eta honakoa gaineratu du: «kanpainaren azken txanpan 400dik gorako bonu saldu ziren».

Balorazio positiboa atera du Udalak, eta dio emaitza ona dela; «erosketa bonuetan 261.610 euro mugatu diren arren, bonuekin egin diren erosketen fakturak ikusita, 358.421 euroko gastua egin du kanpainak».

Sektoreei dagokienez, bonuen inpakturik haundiena, «elikagaiak, oinetakoak, arropa eta osagarriak, estetika eta ileapaindegiak, eta elektrotresnen dendetan eta ostalaritzan» izan duela jakinarazi nahi izan du Udalak. **K**

Udal talde guztiak bat, pintaketen kontrako adierazpenarekin

Iñigo Urkullu lehendakariaren kontra azaldutako pintaketak gaitzetsi dituzte Udaleko talde politiko guztiek.

HERNANI UDALA

Iñigo Urkullu lehendakariaren eta EAJ-PNVren kontra, zenbait pintaketa azaldu ziren ostegunean, Hernaniko Kaxkoan. Horietako batek dio, lurrian pintatuta, *Urkullu, zureak egin du!*

Azaldutako pintaketa horien aurrean, adierazpena kalera-tu zuten atzo, Hernaniko Udalean ordezkatura dauden talde

politiko guztiek, bat eginda: EH Bilduk, EAJ-PNVk, Elkarrekin Podemos-Orain Hernanik, eta PSE-EEK. Adierazpenean diote, «herritar guztiek» daukatela eskubidea, «aukera politiko desberdinak hautatzeko, joko demokratikoaren baitan»; eta haiek guztiek merezi dutela «errespetu maila bera».

Horregatik nabarmendu dute, ez dutela bat egiten «errespetu hori bermatzen ez duten pintaketa eta bestelako jokabideekin». Eta gaineratu dute: «jendarte demokratiko eta normalizatuan, aukera politiko guztien eskubidea da presiorik ez jasotzea, demokrazia arauetan jasota daudenetatik kanpo». **K**

'Small foot' ikusteko aukera, gaur gauean

Zinea aire librean eskainiko dute gaur, 22:00etan hasita, Ereñotzuko plazan. Izena eman behar da alde aurretik.

EREÑOTZU UDA KULTURALA

Gaur emango diote segida, Ereñotzun, Uda Kulturalaren programazioari. Eta oraingoan, zinea eskainiko dute, aire librean: *Small foot* pelikula jarriko dute euskeraz, gaueko 22:00etan hasita, Ereñotzuko plazan.

Marrakzi bizidunetako filma da *Small foot*, 2018an ekoiztutakoa, eta 96 minutuko iraupena dauka. Komediatik eta abenturatik daukan pelikula musikala da, eta Migo da protagonista, Yeti gazte bat. Bere espezie berekoekin bizi da, mendi elur-

tuetan. Denek kontrakoa dioten arren, bera ziur dago badirela *small foot* edo oin txikikoak: gizakiak, alegia. Haietako batekin egingo du topo, eta horrek fama ekarriko dio Migori. Yetien komunitatea, era berean, hasiko da pentsatzen zer gehiago egon daitekeen, beraien bizileku elurtuetatik harago.

Bertan egoteko, izenematea

Pelikula ikusteko, aforoa mugatua izango da; eta bertan egon nahi duenak, izena eman beharko du alde aurretik, Olak Auzo Elkartera deituta edo *WhatsApp* bidez idatzita: 688 780 356.

Datorren astean, zita bikoitza jarri dute Uda Kulturalarekin: ostegunean *Vademekum* kale ikuskizuna, 19:30etan; eta larunbatean *Green Book* pelikula, 22:00etan plazan. Horretarako ere, alde aurretik eman beharko da izena. **K**



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta
aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



Urriza eta Zubiri, semifinalerako peloten aukeraketan. Argazkia: Maialen Andres

Finalaren bila Zubiri, partidu berdinduan

Urrizarekin batera, semifinala jokatu du gaur, 15:15etan hasita Galarretan, Ansa II eta Larrañagaren kontra. Ez dago favorito argirik.

GOIZUETA-HERNANI ERREMONTEA

Gaur jakingo dugu, zein ariko diren datorren larunbateko finalan, Galarretaren 50garren urteurren txapelketan. Semifinala jokatu dute, 15:15etan Galarretan; eta tartean izango da Aritz Zubiri goizuetarra, txartel preziatuaren bila. Urriza ari-

ko da berarekin, eta kontrario izango dituzte Ansa II eta Larrañaga. Ligaxkakoa bezala (32-35 irabazi zuten bigarrenek), berdindua espero da gaurkoa ere. Osteguneko aukeraketan, pelota motelagoak aukeratu zituzten Urrizak eta Zubirik, aurrelariak aukera gehiago izateko; eta bi-ziagoak kontrarioek, Urriza jokoan sartzea saihesteko.

Jaialdiko bigarren partidua izango da hori, eta aurrenekoan ariko da Endika Barrenetxea hernaniarra, txapelketatik kanpo. Etxarrirekin batera jokatu du gaurkoan, Goikoetxea V eta Endikaren kontra. **K**

Elkarri laguntzen, komertzio txikiak eta herritarrak



BERRIAK
Hernani

**BIZI, EROSI
ETA MAITE
HERNANI**



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Hilabete gogorak izan dira hauek, guztiontzat, baina egin dugu aurrera. Eta konfinamendu garaian, oso nabarmen ikusi ahal izan dugu, komertzio txikiak daukan garrantzia. Zabalik egon diren horiei esker, egin ahal izan du aurrera herriak. Haiei esker

hornitu gara, behar genuen guztiarekin. Eta ez dira izan bakarrik elikagai dendak, baita bestelakoak ere; informatika dendak, esaterako: etxetik lanean aritu behar izan dugun honetan, haiek lagundu digute, tinta faltan egon garenean, edo kable bat hautsi zaigunean. Informatika eta teknologia denda handietara

jo ohi dugu erosketak egitera, baina orain arazoak konpondu dizkiguna, izan da etxe azpiko denda txiki hori, normalean kasurik egiten ez dioguna.

Pixkanaka normaltasunera bueltatzeak, ordea, sorpresa eta poza ekarri dizkigu: komertzioek berriro ireki ahal izan dutenean, oso erantzun ona izan dute herritarrek, baita deskontu bonoen kanpaina hasi aurretik ere. Luzerako ote da? Edo lau egunetan utzi-ko diogu herrian erosteari? Edonola ere, poztu gara aldatzarekin, sektore guztietan nabaritu delako, gainera.

Askotan esaten dugu, komertzioek bizia ematen diotela herriari. Eta egoera honetan, begibistakoa izan da: komertziorik gabe, herri iluna eta tristea izan dugu. Horrek erakutsi du, zer nolako argitasuna eta bizitza ematen dion komertzio txikiak, herriari.

Lagunarteko Herriartekoa jokatu du Goizuetak gaur, Lekunberrin

Goizeko 11:00etan hasita, Larraunen kontra ariko da, lau maila ezberdinetan. Hernanin, bost partidu izango ditu Zikuñaga Papelera Torneoak.

URUMEA ESKU PELOTA

Martxa berreskuratzen ari da esku pelota, pixkanaka; eta gaur ere, hainbat partidu jokatu dituzte, Urumea bailarako pelotariak. Lekunberrin daukate hitzordua goizuetarrek, Lagunarteko Herriartekoa jokatu baitute bertan, 11:00etan hasita.

Larraun izango dute aurrean, eta lau mailatan ariko dira.

Benjaminetan, Alsua eta Aranberri ariko dira, Goikoetxea eta Legarraren kontra. Alebinetan, Salaberria eta Lujambio izango ditu ordezkari Goizuetak, Olleta eta Ijurkoren kontra. Infantiletan Legarretak eta Elizegik jokatu dute, Galarza eta Golderazena aurrean dituztela. Eta nagusietan, azkenik, Aizkorbe eta Apezetxea ariko dira, Galarza eta Gurrearen kontra.

Zita bikoitza gaur, Zikuñaga Papelera Torneoak

Hernanin, berriz, beste bost partidu jokatu dira gaur, Zikuñaga Papelera Torneoan; guztiak ere, final laurdenetakoak. Goizean izango dira horietako hiru, 11:00etan hasita, kadete, jubenil eta nagusien mailakoak; baina horietan ez da izango bailarako pelotaririk. Bai, ordea, arratsaldean. 17:00etan hasita, bi partidu izango dira; eta aurrenekoan, elkarren kontra ariko dira Urdangarin eta Saralegi astigarrak, eta Arabaolaza eta Martin hernaniarrak, kadeteetan. **K**

Inbaditzaileak kentzeko, auzolana

ASTIGARRAGA HARITZALDE

Haritzalde Naturzaleen Elkartek deituta, auzolana egingo dute datorren asteazkenean, landare inbaditzaileak kentzeko. Kontxa Etxeberria plazan elkartuko dira, arratsaldeko 18:00etan, eta ibai parkeko landare inbaditzaileak kenduko dituzte: panpa, buddleja eta akazia. COVID-19a dela eta, izena eman behar da aldeztasunetik, parte hartu ahal izateko: 609 420 438 eta 900 110 111 telefonoean, haritzalde@haritzalde.org emaillean, edo bere Facebookean.

Bonoak erosteko, gaur ere aukera

GOIZUETA MERKATARITZA

Deskontu bonoen kanpaina jarri du martxan Goizuetako Udalak, herrian kontsumitzeko. Eta gaur ere eskuratu ahal izanen dira bonoak, goizeko 10:00etatik 13:00etara, udaletxeko orapean.

IRAGARKI MERKEAK

17 urteko neska prestua abuztuan edozein lana egiteko prest. Deitu: 621 056 818
Bi gelako pisua alokatzen da Hernanin. Informazio gehiagorako bidali email bat: sorgin7@gmail.com

Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko. Euskara jakitea ezinberstekoa. **Deitu: 688 69 40 34**

Emakumea lan bila: edozein lan egiteko prest. **Deitu: 609 209 161**

19 urteko neska umeak zaintzeko lan bila, esperientziarekin. Deitu: 688 697 001

Garajea alokagai, ambulatorioaren ondoan, kotxe batentzat. 90 euro hilean. Argi gastua, urtean 60 euro. **Deitu: 943 55 04 71 - 615 009 926**

Pisukide baten bila nabil Hernanin. Maskotarik gabe. Interesatuak deitu zenbaki honetara: **630 271 757**

Udaran zerbitzari lanetarako norbait behar da Hernaniko taberna batean, esperientziarekin.

Bidali CV-a: aurumea@gmail.com / **Deitu: 695 788 981**

Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrik emateko prest. Deitu: 618 119 781
Langile bat behar da URGENTE-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko kameta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**
LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA

GAUR



Behe-laino ugari izango dira goizean, eta baliteke xirimiria egitea ere; baina lainoak gutxituko dira gero, eta eguzkitsua geratuko da arratsaldean. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da. **Min.16° / Max.23°**

BIHAR



Udako giroa nagusituko da, baina ezegonkortasuna ere haundiagoa izango da. Ostarte politikak izango dira, baina laino trinkoak ere agertu daitezke, eta zaparrra da trumoitzen bat bota. **Min.14° / Max.25°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Tanco Idiazabal, 39 (Urniet) **943 550942** **Gauzez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Udaran aurrenekoz bozkatuko dute herritarrek bihar, Eusko Legebiltzarrerako

Pandemiaren eraginez atzeratu ziren apirilaren 5eko hauteskundeak, eta bihar izango dira. Urumea bailaran, 15.798 hernaniar eta 4.827 astigartar daude deituta, botoa ematera.

URUMEA HAUTESKUNDEAK

Bihar aurreneko aldiz, udara be-
tean joango dira botoa ematera,
EAEko biztanleak. Uztaileko bi-
garren igandearekin izango dira
Eusko Legebiltzarrerako hautes-
kundeak bihar, aurreneko deial-
dia atzeratu ondoren: apirilaren
5erako zeuden aurreikusita, bai-
na osasun alarma egoera tar-
teko, EAEko alderdi politikoek
atzeratzeko akordioa egin zuten,
ezingo zirelako beharrezko se-
gurtasun neurriak bermatu.

Eta orain, osasun alarma
atzean utzi eta egoerak hobe-
ra egin arren, ezohiko moduan
egingo dira hauteskundeak.
Maskarillen erabilera, gel hidro-
alkoholikoa eta segurtasun tar-
teak errespetatzea eguneroko-
aren parte bilakatu diren honetan,
1.794.313 biztanle daude bozka-
tzera deituta (1.718.323 bizi dira
EAEn, eta 75.990 atzerrian); 2016
urtean baino ia 11.000 biztanle
gehiago. Horietatik, 584.905 dira
gipuzkoarrak; eta 20.625, Uru-
mea bailarakoak.

Hernanin 15.798 hautesle, eta Astigarragan 4.827

15.798 hernaniar daude bozka-
tzera deituta bihar, 2016ko hau-
teskundeetan baino 49 gehiago
(15.749 ziren orduan). Horien
barrean daude, baita ere, Ereño-
tzuko Auzo Etxean bozkatu be-
har duten 471 bizilagunak; zazpi
gehiago izan ziren 2016an, 478.

Astigarragan, 4.827 dira boz-
ka eman dezaketen herritarrek
(4.343 izan ziren 2016ko hautes-
kundeetan).

Bozkalekuak egokituta, pilaketak saihesteko

Aurreko hauteskundeetan beza-
la, 23 mahai izango dira Herna-
nin, bozka emateko. Baina ego-
kitu egingo dituzte bozkalekuak,
jende pilaketak saihesteko. Horrela, kiroldegia prestatuko
dute bozkaleku bezala, eta bost
mahai jarriko dituzte bertan: Bi-
teritik kenduko dituzten bi, eta
Haur Eskolan kendutako beste
hiru. Etxebizitza hauetakoak
dira, kiroldegian bozkatu behar-
ko dutenak: Atzieta kaleko 1-41
arteko bakoitiak eta 2-46 arteko
bakoitiak; Elkanoko 17-21 eta 31-
37 arteko bakoitiak; Tilosetako
3-5 artekoak; Zapa kaleko 5, 7 eta

9, Plazako guztiak; Andre kaleko
2-28 bakoitiak eta 48tik aurrera-
koak, eta 1-25 bakoitiak eta 43tik
aurrerakoak; Kale Nagusiko 1-15
bakoitiak, 2-28 bakoitiak, eta 33,
50, 63 eta 64koak; Oartzu kaleko
guztiak; Izpizua kaleko 8tik au-
rrerako bakoitiak eta 19tik aurre-
rako bakoitiak; Orkolagako 2 eta
4koak; Txirritako 8tik aurrera-
koak; Urbietako 6-12 arteko bi-
koitiak; Antziola auzoko 37tik
aurrerako bakoitiak eta 44tik au-
rrerako bakoitiak; Galarreta auzo
osoa; Latsunbeto 33tik aurrera-
ko bakoitiak eta 4tik aurrerako
bakoitiak; Latsunbeberri osoa;
Eduardo Chillida pasealekuko
guztiak; Antziolako 1-33 bako-
itiak; eta Argaraingo guztiak.

Gainera, Gabriel Zelaia erai-
kinetik kenduko dituzte bi ma-
hai, eta biak mugituko dituzte
Langile ikastolaren Bidebietako
egoitzara: Etxeberri osoa; Flori-
dako etxebizitza bikoiti guztiak
eta 43garren zenbakitik aurre-
rako guztiak; eta Gartzia Golda-
ratzeko bikoiti guztiak.

Beraz, honela geratuko dira
banatuta, 23 mahaiak: kirolde-
gian bost, Biterin hiru, Langile-
ren Laubidieta eraikinean hiru,
Elizatzu ikastolan hiru, Haur
Eskolan bi, Gabriel Zelaia eraiki-
nean bi, Bidebietan bi, Lizeaga-
ko Larramendi kaleko 11garren
zenbakian bat, Zikuñagako udal
eraikinean bat, eta Ereñotzuko
Auzo Etxean azkenekoa.

Astigarragan, berriz, bi espa-
rrutan banatuko dituzte mahai-
ak. Batetik, Herri Eskolako erai-
kin berrian jarriko dute ohikoa,
baina lehenengo sekziokoak ba-
karrik bozkatuko dute bertan,
1.509 herritarrek. Eta kiroldegi-
an jarriko dituzte gainerakoak,
bigarren eta hirugarren sekzio-
etako herritarrentzat (3.318).

Bietara sarrera, kale berean
egongo da. Herri Eskolara areto
nagusitik sartu beharko da, eta
patiotik atera; eta kiroldegira,
berriz, pistatik sartu beharko
da, eta kale berean dagoen beste
atetik atera. Bozkatzera joateko,
bi aparkaleku egokituko ditu
Udalak, ikastolako patioan eta
udaletxeko plazan.

Segurtasun neurriak, bozkatzera joateko

Eguneroko ekintzetarako beza-
la, segurtasun neurriak har-



Segurtasun tartea errespetatu beharko dira bozkatzera joatean, eta botoa etxetik eramatea gomendatu dute.

tuko dituzte herri bakoitzean,
hauteskundeetarako ere. Bozka-
leku batzuetan mahai gutxia-
go jarriko dituzte, eta tartea
haundituko dituzte horien ar-
tean; bi metrokoak izango dira,
gutxienez. Mahai bakoitzean,
hauteskunde guztietan adina
mahaikide egongo dira, baina
maskarilla kirurgikoak jantzita
egongo dira bertan, bozkatzera
doazenei arreta egiteko; eta gel
hidroalkoholikoa izango dute,
mahai bakoitzean. Mahaikideen
arte, gainera, metro eta erdiko
tartea utzi beharko dute. Botoak
kontatzeko, berriz, bestelako
materiala beharko dute: FFP2
maskarilla, eta nitrilozko gu-
anteak. Plastikozko poltsa her-
metikoak ere emango dizkiete,
babes-materiala botatzeko gero.

Bozkatzera doanak ere, har-
tu beharko ditu neurriak. Derri-
gorrezkoa izango da maskarilla
jantzita joatea, eta ez dauka-
tenentzat, egoitza bakoitzaren
sarreran jarriko dituzte eskura-
garri. Gel hidroalkoholikoa ere
egongo da bertan, eta eskuak
garbitu beharko dituzte herrita-
rrek, bozkatzera sartu aurretik,
eta ateratzerakoan.

Bozkalekuetan, seinaleak ja-

riko dituzte jarraibideekin, eta
markak ere bai lurtean, zehaz-
teko nondik joan eta non itxaron
txanda, distantziak mantenduz.
Toki batzuetan, jende pilake-
taren bat gertatu daitezkeela
aurreikusten duten horietan,
hesiak ere jarriko dituzte. Loka-
lak desinfektatu egingo dituzte
biharko egunaren aurretik, eta
aireztatuta egongo dira uneoro.
Bozketa-kabinak, mahaietatik
aldenduta jarriko dituzte.

Guzti horretan laguntzeko,
DYAko boluntarioak ere egongo
dira bertan.

Jende gehien ibiliko den or-
duak saihestu, eta botoa etxetik
eramatea ere gomendatu dute.

14 zerrenda aukeran, Gipuzkoan

Eusko Legebiltzarra osatzeko
hauteskundeak dira biharkoak.
Guztira, 75 legebiltzarkide au-
keratuko dituzte EAEko biztan-
leek; eta lurralde bakoitzeko, or-
dezkarikopuru bera izango da:
25 Gipuzkoatik, 25 Bizkaiatik eta
25 Arabatik.

Bertako 25ak aukeratzeko
emango dute bozka, Astigarraga,
Hernani eta Ereñotzuko bizilagu-
nek. Eta horretarako, 14 zerrenda
izango dituzte aukeran, 2016an

baino hiru gehiago. Zehazki, ho-
nako guztiak: EAJ-PNV, EH Bil-
du, Elkarrekin Podemos-Ezker
Anitza koalizioa, PSE-EE, PP-Ciu-
dadanos koalizioa, Animalien
Tratu Txarren Kontrako Alderdi
Animalista (ATTKAA-PACMA), Bi-
dezko Mundurantz (PUM+J), Eus-
kadiren Aldeko Libreak (LxE-EaL),
Equo Berdeak, Aulki Zuriak, VOX,
Unión Cristiano Demócrata Es-
pañola (UCDE), Recortes Cero-Los
Verdes-Municipalistas koalizioa,
eta Alderdi Libertarioa (P-LIB).

Eta honakoak dira, Gipuz-
koako 14 aukeretako zerrenda-
buruak: Bakartxo Tejeria Oter-
min (EAJ-PNV), Maddalen Iriarte
Okiñena (EH Bildu), David Soto
Rodríguez (Elkarrekin Podemos-
-Ezker Anitza), Eneko Andueza
Lorenzo (PSE-EE), Muriel Larrea
Laso (PP+Cs), Susana Pérez Benito
(ATTKAA-PACMA), Iratxe Bustin-
za Vivanco (PUM+J), Jose Manuel
Herzog de Bustos (LxE-EaL), Mi-
ren Edurne Baranda De Miguel
(Equo Berdeak), Daniel Lizarral-
de Aguirre (Aulki Zuriak), María
Pérez Fernández (VOX), Eulogio
Gardeazabal Uriarte (UCDE), Jor-
di Martínez Rigol (Recortes Cero-
-LV-M), eta Javier De Barrenechea
Álvarez (P-LIB). K

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen



Epel auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702



NOAQA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:

09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaqa.eus